

ARETO GIDA

The
ARTWORK
as a **LIVING**
SYSTEM



IZENBURUA: The Artwork as a Living System

ARTISTAK: Christa Sommerer eta Laurent Mignonneau

TOKIA: Azkuna Zentroa (Erakusketa Aretoa)

EGUNA: 2024ko otsailaren 7tik maiatzaren 26ra

■ Koproduzioa:



■ Laguntzailea:



ARTISTAK

Laurent Mignonneau eta Christa Sommerer
artistak eta ikertzaileak dira.

Elkarrekin lan egiten dute,
eta lehenetakoak izan dira **arte interaktiboa** izenekoak egiten.
Beren sorkuntza-lanetan, natura-zientziak,
teknologia eta artea batzen dira.

Interaktiboa: Aukera
ematen du pertsona
baten eta ordenagailu
baten artean informazioa
trukatzeko, hizketan egongo
balira bezala.

Ikasketak

Mignonneauk bideoarte ikasi zuen Frantzian.
Sommerer-ek botanika, antropologia eta eskultura
ikasi zituen Vienan.

Estatu Batuetako eta Japoniako hainbat zentrotan
izan ziren egonaldietan,
hala nola MIT CAVS,
National Center for Supercomputing Applications
eta NTT-Intercommunication Center-en.

Beren lanak

Japonian, 10 urtez izan ziren irakasle IAMASen,
Institute of Advanced Media Arts and Science-n.

Austrian Linzeko Arte eta Diseinuko Unibertsitateko irakasleak dira.
2004an, sail berri bat sortu zuten unibertsitate horretan: Interface Cultures.

Sariak

Artista gisa egindako ibilbidean,
50 bat artelan interaktibo sortu dituzte.
Lan horiek 370 erakusketatan izan dira
ikusgai mundu osoko herrialdeetan.

Beren obrek sari asko jaso dituzte:

- 2021: Austriako Estatuko Arte Saria Media Art kategorian (Austria)
- 2016: ARCO BEEP saria (Madril)
- 2012: Wu Guanzhong saria Arte eta Zientziako Berrikuntzari 2012 (Txina)
- 1994: Golden Nica Prix Ars Electronica saria


Beren lanak

Sommerer eta Mignonneauren sorkuntzak
oso garrantzitsutzat jotzen dira artearen historian.

Beren artelan interaktiboak oso berritzaileak dira,
hau da, oso berriak eta orain arte gutxi ikusiak.

Bere lanen **interfazeak** diseinatzeko,
mundu zientifikoarekin
zerikusia duten alderdiak
hartzen dituzte kontuan.
Horregatik, beren lanak “Interfazearen artea”
izenarekin ezagutzen dira.

Interfazea: Informatikan
erabiltzen da,
komunikatzeko eta
informazioa trukatzeko bi
sistema, programa edo
gailu konektatzen dituen
izendatzeko. Adibidez:
ordenagailu-pantaila bat,
sagu bat...



ERAKUSKETA: Aurkezpena

Erakusketa honen izenburua
“The Artwork as a Living System” da.
Alemaniako, Belgikako eta Austriako
beste arte-zentro batzuetatik
igaro ondoren iritsi da Azkuna Zentrora.
Erakusketak betiko gai bat,
arte eta natura, lotzen du

mundu birtualarekin
eta publikoarekiko interakzioarekin
zerikusia duten oso teknika berritzaileekin.

Erakusketa artista bikote honen
30 urteko ikerketaren emaitza da.
Denbora horretan,
bizitza artifizialeko sistemak
eta interfazeak garatu dituzte,
bi mundu interakzioan aritzeko espazioak sortzeko:
artifizialki sortutako mundu bisuala
eta pertsonen zentzumen naturalena.

Sommerer-ek eta Mignonneauk
beren lanaren ideia nagusia jarri dute ikusgai
erakusketa honetan: artelanek bizia dute,
sistema bizidun gisa funtzionatzen dute,
bizitza ikuspuntu askotatik ikus daitekeelako.

Mundu birtuala:

Ordenagailuz simulatutako
espazioa, beraz, ez
erreal, non pertsonak
beste pertsona batzuekin,
objektuekin, lekuekin...

Haientzat, artea ez da artistaren sorkuntza pertsonaletik sortzen den produktu bat, baizik eta zerbait irekia, norbaitek lan horrekin interakzioa duenean aldatzen dena.

Zer aurkituko dugu erakusketan?

Erakusketak 16 instalazio artistiko ditu.

Publikoa, ikusteaz gain, interakzioan aritu ahal da haiekin.

Erakusketaren ibilbideak

1990etik gaurdaino eramaten gaitu, teknologiaren erabilerari eta garapenari dagokienez.

Duela 30 urteko instalazioak ikus ditzakegu, ordenagailuak orain bezainbeste erabiltzen ez ziren garaikoak; eta beste batzuk ere bai, teknologiak aurrera egiten duela eta ekonomian eta gizartean eragina duela erakusten dutenak. Internet, teknologia mugikorra eta adimen artifiziala agertzen dira.

Instalazio gehienak:

- **Murgiltzaileak dira.** Jendea animatzen dute haiekin parte hartzera eta esperimantatzera. Pertsonak espazio digital batean parte har dezakete obrarekin, eta, hor, landareak, ura eta argiak aldatu, eta espazio berriak sor daitezke.

- **Sentitzen dira.** Jendeak bere gorputzean sentitzen du naturarekiko harremana, eta jabetzen da pertsona baten erabaki bakoitzak aldaketa handiak ekar ditzakeela naturaren ekosisteman.
- **“Media art”eko klasikoak dira.** Hedabide berrien artea bezala ezagutzen dena.
- Teknologiaren eta zientziaren eremu berri eta konplexuak **ezagutzeko eta ulertzeko balio dute:** hala nola fisika kuantikoa, genetika molekularra, nanozientzia eta bizitza artifiziala.

